

ALKATEAREN DEKRETUA

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4. artikuluko k) eta ñ) letretan xedatutakoari jarraiki, alkateari dagokio udal administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura finkatzea, udal antolakuntzaren alorrean Udaltzari dagozkion eskumenak salbu, bat etorritz lege horretako 123.1.c) artikuluekin eta Udaltzaren Araudi Organikoaren 4.1 artikuluekin.

Horrenbestez, Udaltzari dagokio antolakuntzaren funtsezko mailak zehaztea, eta alkateari organoen kopurua erabakitzea nahiz beheragoko maila osagarriak ezartzea.

Eskumen horiek baliaturik, aldatu egiten da Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuaren atxikipena, hain zuzen ere, Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Saitetik Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailera, eta Herritarrentzako Laguntzaren eta Gardentasunaren Zerbitzua izatera pasako da.

Horrenbestez, hauxe

XEDATU DUT

LEHENA.- Gasteizko Udalaren antolakuntzaren aldaketa onestea, Udalaren Antolakuntza Araudian ezarritako udal antolakuntzaren funtsezko mailak kontuan hartuz, sail hauetan: Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Sailean eta Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailean.

I. eranskinean jaso dira aldaketak eragindako sail eta zerbitzuen osaera berria.

BIGARRENA Antolakuntzaren egiturako kodeak egokitzeko agintzea Giza-Baliabideen, Ogasunaren eta Udal Administrazioaren Sailei.

HIRUGARRENA. Giza-Baliabideen Sailari agintzea Lanpostu Zerrenda egoera berrira egokitu dezala, eta lanpostuak zein pertsonak udal egitura berriari berraxiki ditzala.

LAUGARRENA. Sinatzen den egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Hala agintzen eta izenpetzen du Gasteizko Udaleko alkate lehendakariak, 2019ko urriaren 10ean.

ALKATE LEHENDAKARIA

I. ERANSKINA

SAILA	ZERBITZUA
UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	ZUZENDARITZA NAGUSIA
	APLIKAZIOAK
	USTIAPENAREN ETA KOMUNIKAZIOEN ZERBITZUA
	IDAZKARITZA TEKNIKOA
	UDAL ZERBITZUAK GARATZEA
	IZAPIDEAK GARATZEA
	ARKITEKTURA ETA PLATAFORMAK
	ADMINISTRAZIOA
	GARBIKETA
	PROIEKTUAK ETA KONTRATAK
	INSTALAZIOAK ETA KONTRATU-KUDEAKETA
	AZPIEGITURAK
OBRAK	

SAILA	ZERBITZUA
HERRITARREN PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	ZUZENDARITZA NAGUSIA
	ADMINISTRAZIOA
	GIZARTE ETXEAK
	HERRITARREN PARTAIDETZA
	HERRITARRENTZAKO LAGUNTZA ETA GARDENTASUNA